

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ASPARRENEKO UDALA

Hasierako onespena ematea 2021eko aurrekontuari

Udalbatzak, 2021eko otsailaren 4ko ohiko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespena ematea erakunde honen 2021eko ekitaldirako aurrekontu orokorrari.

Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak 15. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, espediente hori jendaurrean jartzen da hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, epe horretan interesdunek aukera izan dezaten aztertzeko eta udalbatzari erreklamazioak aurkezteko.

Adierazitako epean erreklamaziorik aurkezten ez bada, aurrekontua behin betiko onetsizat joko da.

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Araia, 2021eko otsailaren 4a

Behin-behineko alkatea
INMACULADA ALBIZU FUENTES